



DEBAKO GARAPEN JASANGARRIRAKO EKINTZA PLANA 2013 - 2016 PLAN DE ACCIÓN DE DESARROLLO SOSTENIBLE DE DEBA

XEDEAK

- Populazioaren eta hirigunearen hazkunde egokia diseinatzea. Deba “imajinario kolektiboan” partekatutako eredu bati jarraikiz eraikiz, kostako herria baita, lasaia eta abegikorra, bere tamainaren arabera zerbitzuak dituen eta hauek, inguruko eremuetan (herri, hiriburu, auzo...) dauden beste zerbitzuekin osatzen dituen, aise iristeko modukoak, mugikortasuneko politika ezin hobeari esker.
- Enpleguaren suntsiketa geraraztea eta haren sorkuntza-prozesuak sustatzea, dauden aukera guztiez baliatuz, industrian eta hirugarren sektorekoak, turismoari lotutakoak bereziki nabarmenduz, nahiz lehen sektorekoak. Horietako sektore bakoitzak oso ekarpen desberdinak egiten ditu adierazle ekonomikoek diotenez, baina guztiak hartu behar dira aintzat elementu sozialak eta ekonomikoak orekatzen baitituzte eta gizarte aberatsa eta osagarriaren isla baitira.
- Hiri-kalitate altuko tokia bilakatzea, haren zentzurik zabalenean, bizilekuei lotutako kalitateari dagokionez zein turismoa erakartzeko gaitasunari dagokionez.
- Debar gazteak zeharo garatzeko kondizio onenak sorraraztea, bai plano pertsonalean (aisialdian, parte-hartzean, kulturean, kirolean...), bai hezkuntzaren eta lanaren arloan (garatzen laguntzeko eta aukerak herrian bertan sortzen lagunduz).
- Baliabide eta zerbitzu publiko zein pribatuak optimizatzea eta ekimen berriak abiaraztea gero eta handiagoa izango den eta gero eta behar handiagoak izango dituen mendeko populazioa artatzeko. Halaber, gero eta murriztapen handiagoak aurreikusten zaizkio kolektibo horren arreta bermatzeko jardunari.
- Ondarearen ahalik eta elementu gehienak berreskuratzea, kontserbatzea eta baloratzea, dela kulturalak (ukigarriak zein alegiazkoak), dela naturalak, egingarritasuna, jasangarritasuna eta errentagarritasun ekonomiko eta soziala irizpide hartuta. Betiere herri euskalduna egituratze bidean.

